




GR®T 13 BELAGUAKO ATERPEA L'ABÉROUATEKO ATERPEA

HASIERA:
BELAGUAKO ATERPEA



OHARRAK:

- Baliteke neguan bidea elurrarekin estalita egotea, arriskutsua da garai horretan ibilbidea burutzea.
- Eskualde honetan ohikoa da laino lodiak eta ekaitzak aurkitzea, beraz jantzi aproposak eta beroki arropa eramateabeharrezkoa da GPSarekin batera, urtean osoan zehar.
- Goi mendiko ibilbidea da, luzera eta desnibel handikoa. Harreta handiz jokatu ibilbide osoan.



Mugaz bestaldeko GR®T 13 loturak, Nafar GR® 12a eta Frantziar GR® 10a lotzea ahalbidetzen du Belagoako aterpetik Frantziako L'Aberouateko aterperaino Insole mendixkatik igarota (2049 m), muga naturala bi estatuen artean alegia. Behin GR® 10ean egonda, Leskuneko herrira luzatu daiteke ibilbidea. Belagoako aterpetik bidea hegoaldera doa Añiberkandiatik pasata GR® 12arekin tartetxo bat elkarbanatuz eta Larrako natura erreserba zeharkatuz paisai karstiko ederra erakutsiz. Insole edo d'Anayeko mendixkatik bideak azkar egiten du behera Billare eta Anieko tontorren artean Sanchésara ailegatuz, GR® 10 loturatik gertu. GR®T 13ko beste adarra hegoaldera doa, Insole tontorretik Aragoiko Linza aterpearekin eta GR® 11rekin lotuz Nafarren Portuaren altueran. Belagoako aterpetik aukera dago Linzara heltzeko Larreriatik pasata GR® 12a hartuta, GR®T 13arekin beste zatitxo bat elkarbanatuz. Bidea seinaleztaturik dago marka txuri eta gorriekin, GR® bide guztiak bezala.